

Bititza osoko trebakuntza eta ikaskuntza

Espanian, Hezkuntza Ministerioak bizi osoko ikaskuntzarako zuzendariordetza bat du, hainbat ekintza koordinatzen dituena. Besteak beste, aipatzekoa da “Aula Mentor” programa, gazte eta helduentzako trebakuntza-ikastaroak eskaintzen dituena, edozein ikasketa-maila dutenentzat. Era askotako gaiak lantzen dituzte; esaterako, teknologia berriak, ekintzaileentzako ikastaroak, osasun-ikastaroak eta familia-osasuna, eta horren barruan osasuna bera (arreta geriatrikoa, adinekoentzako zaintzak, umeen zaintzak, elikadura, musikoterapia) eta hezkuntza (haur hezkuntza, gurasoentzako hezkuntza, droga-mendekotasunaren prebentzioa, sexu-hezkuntza, familia eta eskolako elkarbizitza), garapen pertsonalerako ikastaroak (hizkuntzak, trebakuntza orokorra, ekologia eta ingurumena). Berrikusi orria, eta aztertu honako gaiak:

- 1.- Egiten den eskaintzari dagokionez: zein dira lehentasun nagusiak?
- 2.- Azter ezazu, Europako Kontseiluak ezarritako ahalmenak kontuan hartuta, eskaintza egokia den ala ez.